

**ANTZERKIA eta HITZA**  
**OPOSIZIOA. ALDEZ AURRETIK BURUTU ETA AURKEZTU BEHARREKOAK**

**TEATRO y ÁMBITO DE LA PALABRA**  
**OPOSICIÓN. EJERCICIOS A PRESENTAR ANTES DE LAS PRUEBAS PRESENCIALES**

1. ARIKETA PRAKTIKOA

Eskatutako espezialitateak menderatzen direla frogatzeko Ariketa Praktikoa osatzeko hautagaiak "Dramatizazio bat" sortu beharko du bere bere burua grabatu eta bideo formatuan aurkeztuz **epai-mahaiak proposatutako testueta-riko batetik abiatuta eta testu sorkuntza propioa ere baliatuz**. Baliabideak eta eszenaratzea libreak izango dira, gutxi gora-beherako eta gehieneko 10 minutuko iraupena izango du (500 mb baino gutxiago), eta MP4, AVI edota MOV formatuan aurkeztu ahal izango da. Dokumentua *wetransfer* bidez igorriko da ondoko formularioan NA zenbakia, izen-abizenak eta artxiboaren deskargarako lotura jarritz. Entrega bakarra onartuko da, jasotako lehena.

Testuak abenduaren 9an 12:00etan argitaratuko dira Herri Arte Eskolaren web orrialdean eta hautagaiak 45 minutu izango ditu ekoizpen osorako eta adierazitako loturan telematikoki aurkezteko.

Epaimahaiak alderdi hauek balioetsiko ditu: dramatizazio-proposamenaren sakontasuna eta egokitasuna, intonazioa, erritmoa, ahoskera eta adierazkortasuna. Antzeppen-proposamenaren sakontasuna, egokitasuna eta koherentzia, jarrera eta presentzia eszenikoak, kontzentrazioa eta gorputzaren, ahotsaren eta testuaren arteko lotura.

**[1\) Ariketa praktikoa telematikoki aurkezteko sakatu hemen](#)**

1. EJERCICIO PRÁCTICO

El Ejercicio Práctico a completar por el/la aspirante para demostrar el dominio de las especialidades solicitadas consistirá en realizar una dramatización **a partir de uno de los textos propuestos por el jurado y basándose también en texto propio**, grabándose a sí mismo y presentándolo en formato vídeo. Los recursos y la puesta en escena serán libres, con una duración aproximada y máxima de 10 minutos (menos de 500 mb), y se podrá presentar en formato MP4, AVI o MOV. El documento se enviará *wetransfer* a través del siguiente formulario indicando el número de DNI, nombre y apellidos y el enlace para la descarga del archivo. Se admitirá una única entrega, la primera recibida.

Los textos se publicarán el 9 de diciembre a las 12:00 horas en la página web de Herri Arte Eskola y el candidato-a dispondrá de 45 minutos para la producción y su presentación telemática en el enlace indicado.

El jurado valorará los siguientes aspectos: profundidad e idoneidad, entonación, ritmo, pronunciación y expresividad de la propuesta de dramatización. Profundidad, pertinencia y coherencia, actitud y presencia escénica, concentración y relación entre el cuerpo, la voz y el texto, en la propuesta representada.

**[Pulse aquí para presentar telemáticamente el 1\) Ejercicio Práctico](#)**

## A textua

Udaberri kantoi-hautsia (Mario Benedetti; *Primavera con una esquina rota*)

Itzultzailea: Aiora Jaka

Pocket-Edhesa, 1982- Erein & Igela, 2018

### Beatriz (Hitz itzel bat)

Askatasuna hitz itzela da. Adibidez, eskolak amaitzen direnean, esaten dugu askatasunean gaudela. Asatasunak irauten duen bitartean, norbera paseatzen da, jostatzen da, ez du zertan estudiatu. Esaten da herrialde bat aske dela edozein emakumek edo edozein gizonen nahi duena egiten duenean.

Baina herrialde askeek ere badituzte gauza zorrotz debekatuak. Adibidez inor hiltzea. Hori bai, hil daitezke eltxoak eta labezomorroak, bai eta behiak ere haragitarako. Adibidez debekaturik dago lapurtzea, baina ez da oso larria ni txanponen batekin gelditzea Gracielak, hots nire amatxok, enkargutara bidaltzen naue-  
nean. Adibidez debekaturik dago eskolara berandu iristea, eta halakoetan gutuntxo bat egin behar izaten da, hobeto esanda Gracielak egin behar izaten du, zergatikoa zurrizko. Halaxe esaten du andereñoak: zergatikoa zurrizko.

Askatasunak gauza asko esan nahi du. Adibidez, norbait ez badago preso, esaten da askatasunean dagoela. Baina nire aita preso dago eta hala ere Askatasunean dago, hala baitu izena aspaldiko urteetan dagoen kartzelak: Libertad. Horri osaba Rolandok sarkasmo deitzen dio. Egun batean nire lagun Angélicari kontatu nion nola nire aitaxo preso dagoen kartzelak Askatasuna duen izena eta nola osaba Rolandok esan zuen a zer sarkasmoa, eta nire lagun Angélicari izugarri gustatu zitzaion hitza, eta aitabitxik txakur bat oparitu zionean Sarkasmo izena jarri zion. Nire aitaxo preso da, baina ez inor hil duelako edo zerbait lapurtu duelako edo eskolara berandu iritsi delako. Gracielak esaten du nire aitaxo Askatasunean dela, hau da preso dela, bere ideiangatik. Antza denez, nire aitaxo oso ezaguna zen bere ideiangatik. Nik ere izaten ditut batzuetan ideiak, baina oraindik ez naiz ezaguna. Horregatik ez nago Askatasunean, hau da ez nago preso. Ni preso banengo, nahi nuke nire panpinetatik bi ere, Toti eta Monika, preso politikoak izatea. Izan ere, lokartzean Totirekin behintzat besarkaturik egotea gustatzen zait.

Monikarekin ez hainbeste, marmarti hutsa baita. Baina nik ez dut inoiz jotzen, batez ere jarraibide on hori erakusteko Gracielari. Gracielak gutxitan jo nau, baina jotzen nauenean nik nahi nuke askatasun handi handia izan. Jotzen nauenean edo marmarka egiten didanean nik Berori deitzen diot, berari ez zaiolako gustatzen horrela deitzea. Garbi dago aski jota egon behar dudala Berori deitzeko. Adibidez aitona etortzen bada eta galdetzen badit non dago zure ama, eta nik erantzuten badiot Berori sukaldean dago, jende guztiak badaki jota nagoela, zeren eta jota ez banago Graciela sukaldean dago esaten diot. Aitonak beti esaten du ni atera nintzela familiako joena eta horrek oso pozik uzten nau. Gracielari ez zaio askorik gustatzen nik Graciela deitzea ere, baina nik horrela deitzen diot izen polita delako. Asko-asko maite dudanean ama deitzen diot, edo berarekin zoratzen nagoenean, edo musukatzen eta soinez soin estutzen dudanean eta berak neskaxa ez nazazu horrela estutu esaten didanean, orduan bai, orduan ama edo amatxo deitzen diot, eta Graciela hunkitu egiten da eta goxo-goxo jartzen da eta ferekatzen dit ilea, eta hori ez litzateke hain ederra izango nik edozein ergelkeriagatik esango banio ama edo amatxo.

Beraz, askatasuna hitz itzela da. Gracielak esaten du nire aita bezala preso politiko izatea ez dela inolako lotsakizuna. Ia-ia harrokizuna dela. Zergatik ia-ia? Edo lotsakizuna da edo harrokizuna. Zer pentsatuko luke berak nik esango banu ia lotsakizuna dela? Ni harro nago nire aitaxoz, ez ia harro, ideia asko-asko izan zituelako, hainbeste eta hainbeste haiengatik preso sartu zuten. Nik uste dut orain ere nire aitaxok izango dituela ideiak, itzelezko ideiak, baina ia segurua da ez dizkiola inori esango, zeren eta esaten baditu, Askatasunetik ateratzen denean askatasunean bizitzeko, litekeena da berriz ere Askatasunean sartzea. Ikusten duzue nola den hitz itzela?

[Escriba aquí]



Errenteria Musikal Udal Erakunde Autonomoa Q20005361  
Alfonso XI.aren kalea 6. 20100 ERRETERIA (Gipuzkoa)  
arteskola.eus  
ADMINISTRAZIOA: info@arteskola.eus 943 44 96 33  
PEDAGOGIA: pedagogia@arteskola.eus 943 44 96 46

## B textua

Amaren eskuak (Karmele Jaio)

Elkar, 2006

Hondartzan dago neskatoa, urertzean. Hesia altxatu du harea bustiarekin eta itsasontziaren brankaren forma eman dio. Barruan dago eserita olatu zuriei begira. Aurreko aldean jarriak ditu oinak. Zimur-zimur eginda dauzka, eskuak bezalaxe Gero eta gertuago datorkio ura Brankaren ezker aldetik eraso dio olatuak baina neskatoak segituan konpondu du eta belauniko geratu da, bainu jantziaren tirantea sorbaldatik jausita, hurrengo erasoei azkar erantzun ahal izateko. Badaki azkenean itsasoak irabaziko duela borroka eta, mingainak izozkia bezala, hala desagerraraziko dutela olatuek bere hareazko itsasontzia, baina, hala ere, tinko eta gogoz ari da bere erreinutxo defentitzen Hortzak estututa.

Hondartzan hartutako argazkian bere burua ikusi duenean, haurra zela itsasertzean igarotako udaldien usaina gogoratu du Nereak. Amak jartzen zion kremaren usaina sentitu du, eta kremaz betetako amaren esku labainkorren igurtzia sorbaldetan. Aita eguzkitakoaren pean edo urertzetik paseatzen zebilen bitartean, ama hamakan etzanda egoten zela gogoratu du. Gaur bezala. Gaur ere etzanda dago, bere aurrean, baina ez dago hamakan, ospitaleko ohean baizik. Amari erakusteko ekarri duen argazki zaharra poltsan gorde, eta honen eskuei begira geratu da, geldi, ospitaleko aulki zurian eserita.

Izara gainean ditu amak eskuak. Geldi. Harrizkoak dirudite. Zainetako odola ur geldi bihurtu zaiola ematen du. Ospitalearen izena estaltzen dute haren eskuek, inguratzen zaionari non dagoen ezkutatu nahiko balio bezala. Lo egonda ere, inor ez arduratzeko ahalegina egingo balu bezala.